**EBAZPENA, UNIBERTSITATE POLITIKAKO SAILBURUORDEAREN, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZAKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEKO ESPARRUA EZARTZEN DUEN ETA PREZIO HORIEN SALBUESPEN ETA MURRIZKETEN ONURARAKO BALDINTZAK ZEHAZTEN DITUEN XEDAPEN OROKOR BAT AURRETIAZKO KONTSULTARAKO AURKEZTEN DUENA.**

**RESOLUCIÓN DEL VICECONSEJERO DE POLÍTICA UNIVERSITARIA, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA LA ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE CARÁCTER GENERAL POR LA QUE SE ESTABLECE EL MARCO REGULADOR DE LOS PRECIOS PÚBLICOS DE EDUCACIÓN SUPERIOR DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA Y SE DEFINEN LAS CONDICIONES PARA EL BENEFICIO DE LAS EXENCIONES Y REDUCCIONES DE LOS MISMOS.**

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak urtero xedapen orokor bat egiten du, goi-hezkuntzako zerbitzu publikoen truke ordaindu beharreko prezio publikoak finkatzeko eta prezio horien salbuespen eta murrizketez baliatzeko baldintzak zehazteko.

El Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación, anualmente elabora una disposición anual de carácter general con el objeto de fijar los precios públicos a satisfacer por los servicios públicos de educación superior y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismos.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko zerbitzu akademikoen prezio publikoei aplika dakiekeen araubide juridikoari egonkortasuna eta koherentzia emate aldera, eta kontuan hartuta urtero argitaratzen dela Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian prezio horiek finkatzeko eta dagozkien salbuespenak eta murrizketak aplikatzeko baldintzak zehazteko aipatutako agindua, beharrezkotzat jotzen da prozedura hori arrazionalizatzea. Horretarako, dekretu bat landu nahi da, goi-mailako hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoei aplikatu beharreko salbuespenak eta murrizketak baliatzeko baldintzen esparru arautzailea modu orokor eta iraunkorrean ezartzeko.

Con el fin de dotar de estabilidad y coherencia al régimen jurídico aplicable a los precios públicos de los servicios académicos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, y teniendo en cuenta que anualmente se publica en el Boletín Oficial del País Vasco la mencionada orden para la fijación de dichos precios y para la determinación de las condiciones de aplicación de las exenciones y reducciones correspondientes, se considera necesario racionalizar este procedimiento. Para ello, se quiere elaborar un decreto que establezca con carácter general y permanente el marco regulador de las condiciones para el disfrute de las exenciones y reducciones aplicables a los precios públicos de los servicios de educación superior.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. Artikuluan xedatzen dutenez, arau-

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (artículo 133) y la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (artículo 11), establecen que, con carácter previo a la elaboración de

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la sede electrónica mediante el localizador indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, egiaztagarria, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen bidez egoitza elektronikoan.

xedapenaren proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoan eskatuko da gizarteko herritarren iritzia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taularen bidez.

este proyecto de disposición normativa, se sustanciará en consulta pública, la opinión en la sociedad de la ciudadanía, a través del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Etorkizuneko arauari buruzko informazioa eranskinean dago, eta honako alderdi hauek jasotzen ditu:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
b) Onartzeko premia eta egokitasuna.
c) Arauaren helburuak.
d) Egon daitezkeen ordezko irtenbide batzuk, arautzaileak eta ez arautzaileak.

La información sobre la futura norma se recoge en el anexo y recoge los siguientes aspectos:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) Necesidad e idoneidad para su aprobación.
c) Objetivos de la norma.
d) Posibles soluciones alternativas, regulatorias y no regulatorias.

Horregatik guztiagatik, herritarrei beren-beregi gonbidatzen zaie ebazpen honetan jasotzen den informazioari buruzko iritzia eman dezaten, etorkizunean egingo den xedapen orokorrari buruz.

Por todo ello, se invita expresamente a la ciudadanía a pronunciarse acerca de la información que se contiene en la presente resolución sobre la futura disposición de carácter general cuya elaboración se va a iniciar.

Herritarrek egoki iritzitako iradokizunak edo oharrak aurkez ditzaten, 15 egun balioduneko epea ematen da, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan sartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Se establece un plazo de 15 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la presente resolución, para que la ciudadanía presente todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Kontsulta-izapide hau arau-proiektua idatzi baino lehenago egiten dugu, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 30eko 6/2022 Legeak arautua daukan “prestaketa” fasearen barruan.

El presente trámite de consulta se efectúa, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo, dentro de la fase de “Preparación” de una disposición de carácter general, prevista en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 23ko 494/2024 Dekretuak, ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 494/2024, de 23 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación,

**EBAZTEN DUT**

**Lehena.-** Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezio publikoak arautzeko esparrua ezartzen duen eta horien salbuespen eta murrizketen onurarako baldintzak zehazten dituen xedapen orokor baten proiektua jendaurrean jartzea berau prestatu aurretik.

**Bigarrena.-** Herritarrek eta arauak eragiten dien erakundeek hamabost egun baliodunekoepea izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, ebazpen honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak Sailari helarazteko.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Xabier Aizpurua Telleria

**Unibertsitate Politikako sailburuordea**

**RESUELVO**

**Primero.-** Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general por la que se establece el marco regulador de los precios públicos de los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y se definen las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismos.

**Segundo.-** La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en esta resolución en el plazo de quince días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

Xabier Aizpurua Telleria

**Viceconsejero de Política Universitaria**

| ERANSKINA | | ANEXO |
|---|---|---|
| **1.- Ekimen arauemaile horren bidez konpondu nahi diren arazoak.** | | **1.- Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa.** |
| Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezioak arautzeko esparru bat ezarri nahi da, eta zerbitzu horien onurarako eta murrizketarako baldintzak zehaztu, urteko agindu bat onartzea saihesteko; izan ere, esparru-dekretu bat dagoenez, izapideak azkarrago, sinplifikatuago eta efizienteago egingo dira. Horrela, urtero argitaratu beharko litzatekeen gauza bakarra deialdi-agindu bat izango litzateke, eta, hala badagokio, aldaketaren batekin, halakorik balego. | | Se pretende establecer un marco regulador de los precios de los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y definir las condiciones para el beneficio y reducciones de los mismos para evitar aprobar una orden anual, ya que, al contar con un decreto marco, la tramitación se elaborará de forma más rápida, simplificada y eficiente. De esta manera, lo único que se debería publicar anualmente sería una orden de convocatoria y, en su caso, con alguna modificación si la hubiera. |
| **2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.** | | **2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación.** |
| Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak xedapen orokor bat egiten du urtero, Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezio publikoak finkatzeko eta zerbitzu horien salbuespen eta murrizketen onurarako baldintzak ezartzeko. Helburua da urteko deialdien izapidetzea agindu bidez sinplifikatzea eta arintzea, eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen prezioak arautzeko esparrua ezarriko duen dekretu bat egitea, eta zerbitzu horien onurarako eta murrizketetarako baldintzak zehaztea. | | El Departamentos de Ciencia, Universidades e Innovación, anualmente elabora una disposición de carácter general con el objeto de fijar los precios públicos de los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismo. El objetivo es simplificar y agilizar la tramitación de las convocatorias anuales mediante orden, y elaborar un decreto que establezca el marco regulador de los precios de los servicios públicos de educación superior de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y definir las condiciones para el beneficio y reducciones de los mismos. |
| **3.- Egin nahi den arau-proiektuaren helburuak.** | | **3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar.** |
| Araudi honen helburua esparru arautzaile bat finkatzea da, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu | | Esta normativa tiene por objeto fijar un marco regulador que establezca los precios públicos a satisfacer por los servicios públicos de educación superior de la Universidad del |

| | | |
|---|---|---|
| publikoek ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzeko eta horien salbuespen eta murrizketen onurarako baldintzak ezartzeko. | | País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea y establecer las condiciones para el beneficio de las exenciones y reducciones de los mismos. |
| **4.- Egon daitezkeen ordezko irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.** | | **4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.** |
| | | |
| Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 39. artikuluak jasotzen ditu unibertsitate-zerbitzu akademikoak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioen salbuespenak eta murriztapenak, bai eta legez ezartzen diren gainerako eskubideak ere. Eskubide horiek Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleek izango dituzte, erregelamenduzko aurreikuspenen esparruan. Era berean, artikulu horretan arautzen da prezio publikoak finkatzeko aginduak salbuespen-baldintzak zehaztu ahal izango dituela, bai eta beste salbuespen oso edo partzial batzuk ezarri ere, baldin eta diskriminazio arbitrariorik ez badakarte. Horregatik, horretarako erregulazio bat izatea beste aukerarik ez dago, eta ekimen honek deialdi-aginduen urteko izapidetzearen ordez esparru-dekretu bat ezarri nahi du, urteko deialdia agindu sinpleago eta izapidetze-erraztuago baten bidez bideratu ahal izateko. | | El artículo 39 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, recoge las exenciones y reducciones de los precios a satisfacer por la prestación de servicios académicos universitarios y demás derechos que legalmente se establezcan, que disfrutará el estudiantado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, en el marco de las previsiones reglamentarias. Asimismo, en dicho artículo se regula que la orden o el acuerdo de aprobación de los precios públicos podrán precisar las condiciones de exención, así como fijar otras exenciones totales o parciales, siempre que no impliquen una discriminación arbitraria. Por ello, no existe otra opción que disponer de una regulación al efecto, y lo que pretende esta iniciativa es sustituir la tramitación anual de órdenes de convocatoria, por un decreto marco que permita que la convocatoria anual se sustancie a través de una orden más sencilla y de tramitación mas simplificada. |
| Horregatik guztiagatik, dekretu hau egitea beharrezkotzat jotzen da izapidetzea lortzeko; izan ere, alternatiba egungo egoeran jarraitzea da, eta horrek zaildu egiten du prezio publiko horiek izapidetzea. | | Por todo lo anterior, la elaboración de este decreto se presenta como necesaria para lograr la tramitación, ya que la alternativa es continuar en la situación actual, que dificulta la tramitación de estos precios públicos. |